


# Goi-tentsioko linea elektrikoei buruzko erregelamendua

**Jakintza-arloa / CDU:**
Ingeniaritza (621.3)
Zuzenbidea (351)

**ISBN:** 978-84-9860-563-1
17 x 24 cm.
274 orr.
**PSP:** 23,00 €

**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA**
Argitalpen Zerbitzua
1.397 posta-kutxatila
48080 BILBAO
Tfnoa.: 946 012 000
Faxa: 946 012 333
e-posta: editorial@ehu.es
http://www.argitalpenak.ehu.es

**Banatzailea:**
**ELKAR Banaketa**
Portuetxe, 88
20018 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN
Tfnoa.: 943 311 821
Faxa: 943 310 453 / 943 310 452
e-posta: eskaerak@elkar.com
http://www.elkar.com

Energia-instalazioetako industria-segurtasunari buruzko arau bat da 2008ko otsailaren 15eko 223/2008 Errege Dekretua, Goi-tentsioko linea elektrikoen baldintza teknikoei eta segurtasun-bermeei buruzko erregelamendua eta haren jarraibide tekniko osagarriak (JTO-GTL 01etik 09ra) onartzen dituena.

Erregelamenduaren xedea da goi-tentsioko linea elektrikoek bete beharreko baldintza teknikoak eta segurtasun-bermeak ezartzea, helburu hauek lortzeko: goi-tentsioko linea elektrikoen eraginpean egon daitezkeen pertsonak eta ondasunen osotasuna eta funtzionalitatea babestea; energia elektrikoaren hornidurak behar duen erregulartasuna lortzea; material elektrikoaren fabrikazioan dagoen tipifikazio zabala murrizteko behar diren arauak ezartzea; eta, lineen proiektu-fasetik hasita, zentzuz aurreikus daitezkeen etorkizuneko karga-handitzeetara egokitzeko aukera erraztea.

Erregelamendu honetako xedapenak goi-tentsioko linea elektrikoei aplikatzen zaizkie, eta goi-tentsioko linea elektrikotzat hartzen dira 50 Hz-eko maiztasuneko korronte alterno trifasikokoak, faseen artean kilovolt batetik gorako tentsio izendatu efikaza dutenak. Energia garraiatzeko edo banatzeko beste sistema batzuk -korronte zuzena, korronte alterno monofasikoa edo polifasikoa, eta abar- erabiltzea aurreikusten den lineetan, proiektugileak berariazko justifikazioa egin beharko du, eta proposatutako sistemaren berezitasunetara egokitu beharko ditu erregelamendu honetako oinarrizko printzipioak eta aginduak.

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea
ARGITALPEN ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL